

Irurtzun-Andoain autobidea

«Enfrentamendu zibilaren tranpan ez erortzeko» deia luzatu du HBk

Formazio abertzaleko alkateek manifestu bat eman dute aditzera

Herri Batasunako alkateek, Irurtzun-Andoain autobidearen inguruko gatazka dela eta sortu den giroaren aurrean, Euskal Herriko hegoaldeko udaletxeetan mozio bat aurkeztuko dutela iragarri zuten ezagutzera atzo Hernanin egindako bileraren ondoren.

PELLO URZELAI / DONOSTIA



Hernani eta Laudioko alkateek irakurri zuten manifestua. CARLOS VILLAGRAN

renez, eskubideak irmotasunez defendatzea» erabaki dute HBko alkateek. Halaber, «zinegotzi guztiekin batera, legeko diferentziak errespatuz eta alderdikeria merkeak gaindituz, herriaren zerbitzuan gogotik lanean» jarraitzeko konprometua hartu zuten alkateek.

Dei berezi bat luzatu zuten HBko auzapezek, «enfrentamendu zibilaren tranpan ez erortzeko deia», alegia.

HIRU PUNTUTAKO MOZIOA

Udaletxeetan, tokian tokiko beharrek markatutako egunean aurkeztuko den mozioan, hiru puntu nagusi defendatuko dira. Lehenik,

«Leitzarano harana, Autobidearen trazaketak zeharka ez dezala, horrela, Parke Natural izendapena ahalbidertatuz». Bigarrenik, «elkarrizketa eta kontrastearen bidea bultzatzea, inplikaturiko alderdien artean akordio kontsentsuatu batetara iristeko», eskatuko dute. Eta, hirugarrenik, «alderdien arteko kontsentsura iristen ez baldin bada, herri kontsulta edo erreferenduma egin dadila Gipuzkoan». Mozio horretan, Gipuzkoako Diputazioaren zerbitzu teknikoaren txosten bat aipatzen da, non «Leitzarango harana, bertako florak aldaketa jasan arren, Gipuzkoan gizaratuegia ez dagoen enklabe bakarra» dela esaten den.

«Kalekoa delako» erabili zuten gotzaiek 'preso politiko' hitza

BILBO

Bilboko gotzaiek plazaratutako azken pastoralean 'preso politiko deritzanak' espresioa erabili izanak «ez du esan nahi preso hautzat tratamendu desberdinik eskatu nahi denik, eta ezta ere, gaur egungo marko politikoa zalantzan jartzen denik ere», Luis Maria Larrea Bilboko gotzainak eta Juan Maria Uriarte bere laguntzaileak adierazi zuten.

Preso politiko hitza erabili izateagatik gizarateko zenbait sektoretatik kritikak jaso ditu 'Presoen Senitatekoak' izeneko pastoralak, eta bi gotzainek agiri bat kaleratu zuten atzo kritika horiei erantzuteko. Mezua presoak pertsona bezala hartzea

zela diote Larrea eta Uriartek eta batez ere preso komunei zuzendutakoa.

«Kaleko hizkuntzan erabiltzen den espresioa delako» hartu zuten gotzainek 'preso politiko deritzanak' hitza, agiri horretan esaten denez. «Bai batzu eta bai besteek delitu arruntak burutu dituzte, baina profil soziologiko desberdina dute, euren jatorria eta baldintza sozialak kontutan hartuz», diote gotzainek testuan, baina horrek ez duela tratamendu desberdinik eskatzen uste dute. ETArekiko lejitimizazio asmoa ere ikusi dutela zenbaitzuk presoek buruzko pastoralean, salatu zuten Luis Maria Larrea eta Juan Maria Uriartek kazetarien aurrean atzo eza-gutarazi zuten agirian.

EAK SESBri laguntza ekonomikoa ukatzeko eskatuko du Gasteizen

GASTEIZ

Eusko Alkartasunak SESBri laguntza ekonomikoa ukatzeko eskatuko dio Gasteizko Legebiltzarrari, Lituania eta herri baltikoen auzia argitu arte. EAK ez legeko proposamen bat aurkeztuko du Legebiltzarraren, honek premiazko prozeduraz aztertu eta onar dezan. Osoko bilkurak EAK aurkeztutako proposamena onartuz gero, estatu espainolari deialdi bat egingo dio, honek Europako erakundeetan SESBri laguntza ekonomikoa ukatzea eskatu dezan, SESBk errepublika baltikoen gehiengo borondatea errespetatu arte.

Horretaz gain, Eusko Legebiltzarrak armada sovietarrak Lituania eginiko eraso gaitetsi dezala eta horren berri Madrileko gobernari,

SESBkoari eta baita ere errepublika baltikoko arduradunei eman diezaiola eskatzen du.

Eusko Legebiltzarrak iazko Apirilaren 27an ez legeko proposamen bat onartu zuen, militarren parte hartzea gaitetsi zuen eta Lituaniaren autodeterminazioaren alde agertu. EAK aurkeztutako proposamenean, soviatar armada ez dagoela legitimatirik errepublika baltikoen borondatea eraldatzeko adierazten da, eta gainera, parte hartze horrekin perestroikaren lorpenak zalantzan jartzen direla dio.

Earen ustez, SESBko militarren parte hartze berri batek nazioarteko komunitateari eginiko eraso suposatuko luke, eta hori onartezina dela dio, «Golkoko une larriekin batera etorri bada ere».

TEATRO PRINCIPAL - ANTZOKI ZAHARRA

GAUR OSTIRALA
BIHAR LARUNBATA ETA IGANDEAN
Arratsaldeko 8-etan



MASKARADA_k

aurkeztu du

"Marxkarada"

Bere hamargarren urteurrena, ikuskizun berezi batez ospatu nahi izan du Maskaradak, ohizko zirku eta ikuslegoaz gain, bide berriak urratzen lagunduko diona. Hona hemen, bada, asmo eta ahalegin guzti horien emaitza, mundu osoaren patrimonioa diren Marx Anaiengan oinarrituriko lana: MARXKARADA.

Iraupena: Ordu eta laurden bat.

SARRERAK SALGAI
ANTZERKIDE TFNO. 48.11.55



Donostiako Udaia
Ayuntamiento
de San Sebastián

KULTUR UDAL PATRONATUA
PATRONATO MUNICIPAL
DE CULTURA



Lurraldeko partaideak Ajuria Enean utzi zuten gutuna. OLALDE

Irtenbide demokratikoa laguntzeko eskatu dio Lurraldeak Ardanazari

FELIX IRIARTE / GASTEIZ

Irtenbide demokratikoa dela egokiena Leizarango autobidearen ardanazari Jose Antonio Ardanaz ihar koordinakundearen bozeramaleek de auzi honetan. Bata, «Lemoiz erreiralekoek, ez dute begi onez ikusten Lurraldekoek, «erantzun biolentoak paper erabakikorra jokatu zuelako».

Bigarrena ere, «Aranguren zaborte-giaren eredu», ez da irtenbide egokiena, indarraren bidez inposatuta dagoelako.

Lurraldeak aurkeztu duen hirugarren irtenbidea, kontsentsuaren bidez lortutako irtenbidea, da egokiena koordinakunde honen ustez, «herritarren gehiengo horrelako irtenbide baten alde bait dago». Irtenbide horren alde badago, 26ko manifestaziora gonbidatua dagoela adierazi zuten Lurraldekoek.